

BASKEPENSIONES

15 GAPI

INBERTSIO POLITIKA

Arriskurik gabeko aktiboekin lortu daitekeena baino errentagarritasun handiagoa nahi duten inbertsio-profil kontserbadoreko pertsonentzat. Horretarako, inbertsioaren zati bat, gehienez % 15, errenta aldakor nazional eta nazioartekora bideratzen da.

2020/10/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
%-0,08	%0,48	%-0,66	%-0,33	%0,18	%0,53	%1,81

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
%-0,66	%6,25	%-4,40	%1,65	%1,05	%-1,34	%5,38

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

2020/10/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%4,80
Lurrunkortasun 3 urte**	%3,30

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzintasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

HILEKO IRUZKINA

Hilean zehar, azken hilearen bukaeran gehienbat, osasun krisialdiaren inguruko kezka areagotu da, mundu osoan bizi dugun kutsatze kasuen igoera handiaren ondorioz. Merkatuek beherantz egin dute pandemiaren bilakaera izan daitekeenaren eraginez eta osasun sistemek gobernuen biztanleria konfinatzeraren eraman dezaketen beldur, Europan gehienbat. Egoera horren ondorioz, zalantzak sortu dira ekonomiaren berpiztearen inguruan. Bigarren hiru hilekoan bizitako geldialdi historikoaren ondoren jardura nabarmen berpizten zela ikusi badugu ere, etorkizuneko ekonomiaren hazkuntzak alde handiak ditu: igoera handia izan du Txinan, AEBk nolabait hobe eutsi dio eta Europan mantsotu egin da, azken agerraldian BCEren


presidentek onartu zuen bezala. Bileran hartan, interes-tasak egonkor mantendu zituen eta moneta politikako tresna guztien neurria berriz hartzeko asmoa adierazi zuen, abenduan aktibatzeko asmoz. Bien bitartean, FEDak argitaratutako azken aktetan ikus zitekeen Erreserba Federalaren helburuetan bira berri bat gauzatzeko moduan adostasunik ez dagoela. Arlo geopolitikoan ere zarata handia izan da hilabete honetan. Erresuma Batuan gatazkak bizi dituzte oraindik ere Europar Batasunarekin dituzten negoziatioetan, eta litekeena da Brexit gogorra izatea urte bukaeran. AEBtan kezka areagotuz doa azaroko presidentea hautatzeko hauteskundeetara. Lehenengo eztabaidan irainak eta batak besteari etetea izan ziren nagusi, testu inguru

honetan Trumpek demokraten eta errepublikanoen arteko negoziatioak eteten zituela iragarri zuen. Azkenik, bai AEBn bai Europan 3. hiru hileko enpresa emaitzak argitaratzeko denboraldia eremu negatiboan dago baina, oro har, espero zena baino hobeto. Agertoki horren aurrean, hilaren bukaeran, ezkortasuna nagusitu da inbertitzaileen artean, eta eroriko handiak bizi izan dira burtsan. Hala, Estatu Batuetan, Dow Jones indizeak % 4,61 eko erorikoarekin itxi zuen, handiena martxoaz geroztik. Bestetik, S&P500 eta Nasdaq indizeek % 2,77 eta % 3,20 egin zuten atzera, hurrenez hurren. Erorikoak handiagoak izan dira Europan, non Dax indizeak ia % 10 galdu duen eta Eurostoxx indizeak, aldiz, % 7,37. Nazioarteko gainerako


merkatuetan, Japoniak ere ez ditu ekiditu ahal izan zenbaki gorriak. Emergenteen indizea, aldiz, % 1,98 igo da, bere osotasunean. Errenta finkoko merkatuek aktibo arriskutsuen inbertsioen irteerak bildu dituzte. Horrek zor publikoko tasen jaitsiera ekarri du, bai Amerikakoa, bai Alemaniakoa. Errenta finko pribatuko bonuen diferentziaiek, aldiz, gorakadak izan dituzte, arriskuaren aurkako mugimenduen ildo beretik. Azkenik, errenta aldakorreko hegazkortasuna dibisen merkatura eta petrolioaren merkatura iritsi da. Hileko mugimendurik nabarmenena Ipar Amerikako dolarren igoera izan da, babes aktibo gisa.

EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	2.700.072.526,01
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxienezko epea:	-



Zorroaren banaketa



Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



BASKEPENSIONES 15 GAPI

BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

BASKEPENSIONES 15 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

**ZEURE
B
PLANA
BASKE
PENSIO
NES**
BANAKAKO BGAEa
Kutxabank SA
Bazkide sustatzailea.
Kutxabank Gestión
IKESK SAU Ondare
Kudeatzailea.



PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,
Baskepensioneseekin:
SIMULAGAILUA**